

- Zenbaki bakoitzak aurreko zenbakiak barnean dituela egiaztatzea.
- Manipulatiboki zenbakien harremanak lantzea luzerak oinarritzat hartuz: “X Y baino handiagoa da”; “X Y baino txikiagoa da”; “X eta Y baliokideak dira”.
- Zenbaki serie desberdinak sortzea.
- Zenbakien konposizio eta deskonposizioa azaltzea.
- Zenbakitze sistemak azaltzea multzokatze desberdinen bitartez.
- Batuketa eta kenketa eragiketen hastapenak sartzea.
- Enpirikoki egiaztatzea batuketaren trukatzeko eta elkartzeko ezaugarriak.
- Erdi bikoitzaren kontzeptua lantzea.
- Intuitiboki biderketa lantzea batugai berdinen batuketa moduan.

### ZENBAKIKUNTZAREN GAITASUNAK

Arestian aipatu bezala, erregleten erabilerak zenbakikuntzaren etengabeko barneratzean laguntzen du. Hori horrela, erregletekin egingo diren ariketa ezberdinen bitartez, haurrak honako gaitasun hauek lortzen joango dira:

- Zenbakien eta logikaren arteko erlazioaren behaketa.
- Hitzeko adierazpena.
- Hipotesien edo ezezagunaren azalpen edo planteamendua.
- Jasotako informazioaren analisia.
- Estimazioa.
- Ikerketa eta aurkikuntza.
- Estrategien bilaketa.
- Akziotik idatzizko kalkulura pasatzea.

Baliteke gaitasun hauek, planteatutako diren ariketa gehienetan agertzea eta hauen bitartez denak lantzea; eta komenigarria da Lehenengo Hezkuntzako etapan zehar hauen lanketa sakona egitea. Baina ez da beharrezkoa, materiala erabiltzen den bakoitzean gaitasun guztiak nabarmentzea. Ikasle bakoitzaren arabera aldatzen joan daiteke, batez ere, egoera konkretu bakoitza aprobetxatuz eta irakaslearen inizatiba jarraituz.

#### Bibliografía

- CANALS, M. ANTONIA. (2011), *Las regletas*. Barcelona: Associació de Mestres Rosa Sensat.
- FERNANDEZ BRAVO, J.A. (1989). *Los números en color de G. Cuissenaire*. Relaciones dinámicas para el descubrimiento de la matemática en el aula. Seco Olea. Madrid.